

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

693/2025 Erabakia, azaroaren 18koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Basogintzako Laguntza Planaren 2026ko deialdiaren alde zurreko izapideei

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzako Laguntza Plana arautzeko oinarriak onetsi ziren. Plan horrek urtez urteko laguntza deialdien bidez garatzea aurreikusten du.

Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontu proiektuan partida hauek daude:

“40106. G/172400/76290421 Mendi publikoetarako laguntzak 2026”:

- 2026ko urteko zenbatekoa: 650.000,00 euro.
- 2027ko urteko zenbatekoa: 600.000,00 euro.

“40106. G/172400/76290422 Mugaketak eta mugarritzeak 2026”:

- 2026ko urteko zenbatekoa: 70.000,00 euro.
- 2027ko urteko zenbatekoa: 50.000,00 euro.

“40106. G/172400/78000404 Mendi partikularretarako laguntzak 2026”:

- 2026ko urteko zenbatekoa: 125.000,00 euro
- 2027ko urteko zenbatekoa: 200.000,00 euro.

2026rako Basogintzako Laguntzen erakunde onuradunek inbertsioak gauzatzeko behar adina denbora izan dezaten, beharrezkotzat jotzen da gastuaren izapidetze aurreratua egitea.

Deialdia ebazteko baldintza da 2026ko ekitaldirako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Nekazaritza zuzendaria ados dago proposamenarekin.

Horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Basogintzako Laguntza Planaren 2026ko laguntzen deialdia, izapidetze aurreratuaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat etorritz:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- Basotzea (81 kodea).
- Basoetako kalteak prebenitzea (83 kodea).
- Basoetako kalteen konponketa (84 kodea).
- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak (85 kodea).

- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak (86 kodea).
- Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpi-egiturak (43 kodea).
- Basoen kontserbazioa (99 kodea).

Eskaerak aurkezteko epea:

ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik 2025eko abenduaren 31ra arte.

Eskaera telematikoki aurkeztuko da, egoitza elektronikoan gaitutako “Baso laguntzak” izapide espezifikoen bidez egoitza.araba.eus-en. Bide hori nahitaezkoa da erakunde publikoentzat, enpresentzat, elkarteentzat eta beste pertsona juridiko batzuentzat, eta aukerakoa pertsona fisikoentzat, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluen arabera.

Telematikoki aurkezteko obligaziorik ez dutenek aukera izango dute eskabidea inprimaki normalizatuan egiteko, Nekazaritza Sailaren web orrian eskuragarri egongo dena. Eskabide hori aurkeztuko da Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean edo inbertsioaren xede diren lursailen kokapenari dagokion eskualdeko nekazaritza bulegoan, hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kreditu erreserbak:

Arabako Foru Aldundiaren 2026rako aurrekontu proiektuan agertzen diren partiden kargura egingo da:

PARTIDA	NEURRIA	2026. URTEA	2027. URTEA	DEIALDIA, GUZTIRA
Mendi publikoetarako laguntzak, guztira 40106. G/172400/76290421		650.000	600.000	1.250.000
Mendi publikoetarako laguntzak	43	380.000	320.000	700.000
Mendi publikoetarako laguntzak	81	10.000	280.000	290.000
Mendi publikoetarako laguntzak	83	180.000	0	180.000
Mendi publikoetarako laguntzak	84	50.000	0	50.000
Mendi publikoetarako laguntzak	86	10.000	0	10.000
Mendi publikoetarako laguntzak	Kontserbazioa	20.000	0	20.000
Mugaketak eta mugarrizteak, guztira 40106. G/172400/76290422		70.000	50.000	120.000
Mugaketak eta mugarrizteak	85	70.000	50.000	120.000
Mendi partikularretarako dirulaguntzak, guztira 40106. G/172400/78000404		125.000	200.000	325.000
Mendi partikularretarako laguntzak	81	5.000	200.000	205.000
Mendi partikularretarako laguntzak	83	100.000	0	100.000
Mendi partikularretarako laguntzak	84	10.000	0	10.000
Mendi partikularretarako laguntzak	86	10.000	0	10.000
Guztira, oro har		845.000	850.000	1.695.000

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasiera batean gordetako zenbatekoa adina izango dira.

Neurrietako batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Bigarrena. Dirulaguntzak emateko baldintza etengarria izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako aurrekontu antolamenduan, deialdia ebazten den unean.

Hirugarrena. Nekazaritzako diputatuari eskuordetzea Foru Gobernu Kontseiluari dagozkion eta erabaki hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko ahalmena, lege ezarritako salbuespenetan izan ezik, eta Aurrekontua Betearazteko Foru Arauan gastua baimendu eta antolatzeko ezartzen diren eskumenari eta mugari kalterik egin gabe.

Laugarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA